



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Zientzia Politikarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades
e Investigación
Dirección de Política Científica

EBAZPENA, 2016ko abenduaren 29koa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, 2016-2018 epealdiari dagokionez, oinarritzko eta/edo aplikatutako ikerketa-proiektuak egiteko laguntzak emateko deialdia ebazten duena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015ko abenduaren 31ko Aginduak (EHAA, 249. zk., 2015ko abenduaren 10koa), 2016-2018 urteen artean oinarritzko eta/edo aplikatutako ikerketa-proiektuak egiteko laguntzak emateko deialdia egiten du.

Deialdi horretan parte hartzeko eskabideak ikusi dira.

Zientzia Politikarako zuzendaria buru delarik, Unibertsitateetako zuzendariak eta ikerketa-programen teknikari batez osatutako ebaluazio-batzordeak egindako esleipen-proposamena ikusi da, eta deialdiko 13. artikulua ezarritakoarekin bat etorrita,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ikerketa-proiektuak egiteko diru-laguntzak esleitzea, hain zuzen ere Ebazpen honen **1. Eranskina Ebazpena** eranskinean datozenak. Bertan agertzen da 1. eta 2. modalitateko proiektuetan parte hartzen duen onuradun bakoitzari dagokion laguntza.

Bigarrena.- Esleipen horiek eginda aurrekontu-kreditua amaitzean, eta Deialdiko 12.5 artikulua araberak, gainerako eskabideak baztertu egin dira aurrekontu-mugengatik, edo ez direlako heltzen eskatutako puntuaziora (**2. Eranskina Ebazpena**). Baztertutako eta uko egindako eskabideak, zein bere arrazoiarekin, **3. Eranskina Ebazpena** eranskinean daude.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka interesdunak gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango dio Hezkuntzako sailburuari, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Gasteiz, 2016ko abenduaren 29a.

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
Ikerketa eta Unibertsitate Sailburuordea
Viceconsejero de Universidades e Investigación

